


BEDERATZIGARREN GAIA: ORDENA KONSTITUZIONALAREN DEFENTSA

1.SARRERA

Konstituzioak bitarteko desberdinak aurreikusten ditu bere **edukien defentsarako**, erasotzen duen oroen gainetik jartzeko. Konstituzioak dituen **baliabideak** horrela ulertu ahal dira: **zentsu zabalean** (konstituzioa defendatzeko lehen sistema, botere banaketa ezartzea eta deszentralizazio politikoa) eta **zentsu ertzian** (konstituzioaren defentsarako sistema zehatzak, izan daitezke ez-ohikoak, hau da, zurruntasun konstituzionala eta konstituzioa erreformatzeko prozedura eta ahalgabetze konstituzionala eta ohikoak, hau da, konstituzionaltasun kontrola eta auzitegi konstituzionala).



2.KONSTITUZIOAREN BABESERAKO EZ OHIKO BITARTEKOAK

1.Zurruntasun konstituzionala eta konstituzioa erreformatzeko prozedura.

Konstituzio bat zurruna dela esaten da erreformatzeko zaila denean, hau da, bere erreformatzeko prozedurak oso indartuak daudenean. Espainiar konstituzioa oso zurruna da, badator arautua 167 eta 168.artikuluetan, erreforma arrunta eta berrikuspen osoa, erreformarekin jakin behar da, ez dagoela berez espainiar konstituzioan aldaezina den atalik (espainiar konstituzioan ez da hori idatzita agertzen), hau da, konstituzioaren edozein gauza alda daiteke, beste kontu bat da ea erreforma bidez edozein gauza alda badaiteke, baina konstituzio erreforma prozeduren bidez nahiz eta izan berrikuspen orokorra ezin da konstituzioaren muina aldatu, horretarako botere konstituziogilea aktibatu behar da.



2.Ahalgabetze konstituzionala

1. Alarma, salbuespen eta setio egoerak

Ez-ohikoak diren egoeretan salbuespen zuzenbide bat aplikatzea posiblea da, Espainiar konstituzioan, alarma, salbuespen eta setio egoerak araututa dator 116.artikuluari eta gainera, lege organiko bat 1981koa, egoera horiek arautzen dituena. Egoera hauetan ezin da kongresua disolbatu eta gobernuak erantzule izaten jarraitzen du.

- **Alarma egoera** → Noiz aldarrikatu daiteke? Legeak dioena da, katastrofe naturalak, epidemiak, eta krisi sanitarioak, zerbitzu publiko oinarrizkoen paralizazioa eta oinarrizko produktuen desabastezimendua.

Zein da bere eragina? Alarma egoera aldarrikatu denean, autoritate eta funtzionario guztiak gobernuaren menpe geratzen dira eta honek agindutakoa bete behar dute, gobernuak gainera ez-ohiko lanak ezarri ahalko dizkie, eta mugak ere jar dezake gobernuak (trafikoa moztu, kontsumoa, errekiak...).

Nola aldarrikatzen da? Gobernuak aldarrikatzen du gehienez 15 egunetarako, hortik aurrera luzatu nahi badu kongresuaren baimena behar du.

- **Salbuespen egoera** → Noiz aldarrikatu daiteke? Legearen arabera, askatasunak, instituzioen funtzionamendua, zerbitzu publikoak edota ordena publikoa larriki erasotuta direnean eta ohiko bitartekoekin egoera hori zuzendu ezin denean.

Zein da bere eragina? Autoritate eta funtzionario publiko guztiak gobernuaren menpe geratzen dira eta horretaz gain eskubide batzuk suspenditzen ahal dira.

Nola aldarrikatzen da? Gobernuak deklaratu du, baina aurretik kongresuaren baimena behar du, bai baimenak eta bai deklarazioak zehaztu behar dute ongi zein den salbuespen egoeraren aplikazio eremua, bere eragina eta bere iraupena. Gehienez hilabete bat luzatu daiteke, berez hilabete hori da topea baina hilabete hori eta gero luzatu ahal da beste hilabete bat.

- **Setio egoera** → Noiz aldarrikatu daiteke? Legeak esaten du, matxinada (insurrección) edo bortxa ekintzak bideratu direnean, espainiaren subiranotasun edota independentziaren aurka, bere lurralde osotasuna edota ordenamendu konstituzionalaren aurka. Legeak ez du markatzen iraupen maximorik.

Zein da bere eragina? Salbuespen egoeraren oso antzekoa, ezberdintasuna dagoelarik eskubide bat edo besteren suspentsioan, egoera honetan eskubide gehiago suspenditu ahal dira.

Nola aldarrikatzen da? Kongresuak aldarrikatzen du, gehiengo absolutuz eta ongi adierazi behar dira, baldintzak, lur eremua eta iraupena.

CAOS AÉREO | Si los controladores no acuden a trabajar, pasarán a disposición judicial

El Gobierno declara el estado de alarma



El vicepresidente primero del Gobierno, Alfredo Pérez Rubalcaba, junto al ministro de Fomento, José y la ministra de Defensa, Carme Chacón. | Efe

Compartir

- El estado de alarma supone movilizar militarmente a todos los controladores
- El delito puede acarrear hasta seis años de cárcel y la pérdida de empleo

Me gusta 995

2. Eskubide eta askatasunen suspentsioa

Salbuespen eta setio egoeretan eskubide osoa suspenditu daiteke, alarma egoeretan adibidez soilik mugak jar daitezke, nola alarma egoerarekin ezin da eskubidea suspenditu.

Salbuespen eta setio egoeretan egin daitekeen eskubide eta askatasunen suspentsioa konstituzioaren 55.1.artikuluaren aurki dezakegu, bertan aurkitzen ditugun eskubide eta askatasunak bakarrik **suspenditu daitezke**, kontuan izan behar da eskubide hauek eskubide oso garrantzitsuak direla, bertan, **17.artikulua** dugu (askatasun eta segurtasun eskubidea, atxiloketa prebentiboa 72 ordukoa, abokatua izateko eskubidea, habeas corpora...), **18.2 eta 18.3 artikulua** (etxebizitzaren bortxaezintasuna eta komunikazioen sekretua), **19.artikulua** (zirkulazio eta bizileku askatasuna, alegia setio egoera batean finkatzen da ezin dela inor estatuko territoriotik atera), **20.artikulua** (adierazpen askatasuna edota informazioa jaso eta emateko askatasuna), **21.artikulua** (manifestatzeko eta biltzeko askatasuna), **28.2 artikulua** (greba egiteko askatasuna), **37.2 artikulua** (gatazka kolektiboak planteatzeko askatasuna).

Eskubideen suspentsioari dagokionez, ezberdintasun bakarra salbuespen eta setio egoeren artean zera da: salbuespen egoeran ezin daiteke 17.3 artikulua suspenditu (eskubideen irakurketa, zure kontra ez deklaritzen eta abokatua izateko eskubidea).

Bestalde, konstituzioaren 55.2 artikuluan terrorismo kasuetarako 17.2, 18.2 eta 18.3 artikuluetan jasotzen diren eskubideen suspentsioa aurreikusten du.

3.KONSTITUZIOAREN BABESERAKO OHIKO BITARTEKOAK

1.Konstituzionaltasun kontrola.

Konstituzioa arau juridiko gorena dela bermatzea edo konstituzioaren nagusitasunarekiko errespetua bermatzea. **Zuzenbide konparatuan konstituzionaltasun kontrola garatzeko bi eredu** daude: **Difusoa** (epaile guztiek egiten dutenean konstituzionaltasun kontrola, kontua da, eredu honetan legea ez dela indargabetzen besterik gabe ez da lege hori kasuari aplikatzen) eta **konzentratua** (auzitegi bakarraren esku geratzen da eta kasu honetan eragina bai izan daiteke legearen indargabetzea). Espainiar estatuaren eredu printzipioz konzentratua da nahiz eta, difusoen ezaugarri batzuk ere baditu. **Konstituzio kontrakotasuna** izan daiteke **formala** (arau bat konstituzioaren kontra formalki doanean, hau da, arazoa formetan dagoenean; adibidez, gobernuak oinarrizko eskubide batentzat lege arrunt batean arautzea, konstituzioaren kontra doa zeren eta, oinarrizko eskubideak lege organiko bidez arautu behar dira) edo **materiala** (konstituzioaren edukiaren kontra egiten duenean; adibidez, gobernuak islamisten aurkako torturak onartzen baditu, zeren eta konstituzioak torturak debekatzen dituelako).

Konstituzio kontrakotasun helegitea, auzitegi konstituzionalak ez ditu legeak aztertzen bere kaxaz, helegite hori jarraituz martxan jartzen da prozedura hori. Helegite hori bakarrik jar dezakete gobernuko presidentea, arartekoak (defensor del pueblo), 50 diputatu edo 50 senatari, eta autonomi-erkidegoetako gobernuak zein parlamentuek. Normalean ez du eragin suspentsiborik, hau da, zuk ukatzen duzu lege bat konstituzioaren kontrakoa dela baina sententzia irmo bat izan arte lege hori indarrean jarraitzen du, salbuespena, autonomi-erkidegoen kontra jartzen denean, auzitegi konstituzionalak tramitera onartzean suspenditzen da (printzipioz suspentsio hori 5 hilabeterako da, eta denbora hori pasa eta gero totalean suspenditzeko edo denbora luzatzeko aukera).

Konstituzio kontrakotasun galdera, kontrol difusoen ezaugarria da, epaile batek konpondu behar duenean kasu bat, gertatzen ahal zaio zalantzak izatea, aplikatu behar duen legearen gainean ea konstituzioaren araberrakoa den ala ez. Epaileak auzitegi konstituzionalari egiten dio galdera. Noiz planteatzen du epaileak hori? Egon behar da lege mailako arau bat kasurako aplikagarri, lege horrek funtsezko izan behar du kasu horren ebasketarako eta benetako zalantza egon behar da bere konstituzionaltasunaren inguruan. Kasuaren epaiketa suspenditzen da auzitegi konstituzionalak epai bat eman arte.

2. Auzitegi konstituzionala

Elementu zentral gisa dela konstituzioaren interprete gorena eta benetako organo jurisdikzionala da, hau da, sententziak ematen ditu. Auzitegi konstituzionala 12 kideek osatzen dute (4 kongresuak hautatuak, 4 senatuak, 2 gobernuak eta 2 botere judizialaren kontseilu orokorra), 9 urterako kargua da, 9 urtero osorik berritzen da eta 3 urtero 4 epaile berri hautatzen dira. Lehendakariak du kalitatezko boza bakarrik berdinketa dauden kasuan, lehendakaria 12 epaile hauen artean aukeratzen da, 12 epaile horiek bakarrik bozkatzen dute lehendakaria.

Auzitegi konstituzionalaren egituraketa: pleno bat dago 12 epailak bildu egiten dituen, bi sala (6 epaile eta 6 epaile) eta lau sekzio (3 epailetakoa bakoitza).

Eskuduntzak: Auzitegi konstituzionalak **batetik** ebazten ditu konstituzio kontrakotasun helegiteak, **bigarrenik** erantzuten ditu konstituzio kontrakotasun galderak, **hirugarrenik**, babes helegiteak aztertu egiten ditu eta haien gainean erabaki, **laugarrenik**, eskuduntzen gatazka estatua eta autonomi erkidegoen artean edo autonomi erkidegoen artean ematen direnak, **bostgarrenik**, atribuzio gatazka organo konstituzionalen artean, **seigarrenik**, nazioarteko tratatuen kontrol prebentiboa (parlamentuan aurkeztu baino lehen, indarrean ez daudenean), **zazpigarrenik**, tokiko autonomien defentsan udalerrri zein probintziek autonomien edo estatuaren legeen aurka jartzen dituzten helegiteak, eta **azkenik**, auzitegi konstituzionala erabakitzen ditu Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako foru arau fiskalen aurkako helegiteak.

